

LGTB+ BIZITZEK BALIO DUTE

Ekainaren 28an, LGBTI+ harrotasunaren egunean, hainbatetan esan duguna errepikatu nahi dugu: Harro gaudela gure bizitzez, harro gure bizi historiaz, harro LGBTI+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek *cis-hetero* arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituzten honetan, inoiz baina garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGBTI+fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Horren guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Astigarragako Udalak eraiki egin behar ditu politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara.

Horregatik guztiagatik udaletik bultzatu egin nahi dugu herrian LGTBI+ mugimendua sor dadin eta bertan parte hartu nahi duen pertsona ororekiko konpromiso irmoa adierazi nahi dugu. Horiei guztiei udalaren zein udal zerbitzuen prestutasuna eskainiko diegu. Erreferente eta norbanakoak aktibatzea sustatuko dugu, eta herrian sortzen diren ekimenak babestuko ditugu.

Horrez gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan herrian zein inguruetan antolatuko diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko. Amaitzeko, LGBTI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriendu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora Ekainaren 28a!

Bozeramaile Batzordeak 2022ko ekainaren 21ean onartutako testua





Astigarragako Udala

LAS VIDAS LGTBI+ VALEN

El 28 de junio, día contra la LGBTI+fobia, repetimos lo que hemos dicho tantas veces: que estamos orgullosas de nuestras vidas, orgullosas de nuestra historia vital, orgullosas del movimiento LGBTI+.

Ahora que los intentos de estigmatización de los principales medios de comunicación y la manipulación y los discursos de extrema derecha pretenden eliminar vidas que salen de la norma *cis-hetero*, es importante celebrar y reivindicar de dónde venimos. De Stonewall a Euskal Herria, hemos tenido miles de vivencias, pérdidas, reivindicaciones y logros, pero todavía queda mucho por hacer. Los datos de ataques LGBTI+fóbicos van en aumento, el armario sigue presente en todos los ámbitos de nuestra vida, proliferan los discursos patologizantes... y por tanto nuestras vidas están en peligro.

Ante todo esto, tenemos que organizarnos y luchar. El Ayuntamiento de Astigarraga debe construir políticas públicas integrales y sólidas, servicios basados en la perspectiva feminista, mecanismos de protección colectiva y de autodefensa... Es hora de abandonar las políticas anecdóticas y poner en el centro las estructurales. En eso estamos.

Por todo ello, desde el Ayuntamiento queremos fomentar la creación del movimiento en nuestro municipio. Queremos mostrar nuestro firme compromiso hacia toda persona que quiera participar en él, y mostrar la predisposición del Ayuntamiento y de los servicios públicos. Fomentaremos la activación de diferentes referentes y ciudadanía, y apoyaremos las iniciativas que nazcan del municipio.

Además de esto, hacemos un llamamiento a participar en las iniciativas y movilizaciones que se organizarán en el municipio y alrededores entorno al 28 de Junio. Para terminar, queremos felicitar a las personas y colectivos que están trabajando y luchando para que las vidas de las personas LGBTI+ sean vivibles en el día a día, porque formamos un movimiento del que podemos presumir. Porque nuestras vidas valen, ¡viva el 28 de Junio!

Texto aprobado por la Comisión de Portavoces el 21 de junio del 2022

